

Araudia

- **XII DURANGOKO SAPUBIKE MTB MARTXA, G95681904 IFZ** zenbakidun Durangoko Sapubike Bizikleta taldeak antolatzen duen mendiko bizikleta martxa ez lehiakorra da.
- Frogaren irteera eta helmuga **OTAMOTZENA PARKEAN (PAGASARRI KALEA)** irailaren 20-an, goizeko 9:00etan izango da. Frogak 30 Km eta 1.200m-ko desnibela dauka.
- 14-18 urte bitarteko gazteek gurasoen edo tutorearen baimen sinatuarekin eta federatuak badaude bakarrik parte hartu ahal izango dute.
- Gehienez 300 txirrindulariak parte hartuko dute. Izena eman ez duen txirrindularia, bere ardurapean jardungo da eta ez ditu eskuratuko emango diren opari ez eta garaikurrak ere.
- Izena emateko bi era daude:
 - **AURRETIAZKO IZEN EMATEA** (uztailaren 10etik irailaren 10ra): www.kirolprobak.com web guneetan online bidezko izen ematea eginez eta federatuek **20 €** ordaindu beharko dituzte, eta federatu gabekoek **25 €**. Bizkarrekoak irailaren 18an 18:00ak 20:00ak bitartean lokalean (Askatasun Etorbidea 46, Durango) jasotzeko aukera egongo da, edota frogaren egun berean 7.30ak 8.45ak bitartean **OTAMOTZENA PARKEAN (PAGASARRI KALEA)**
 - **EGUNEAN BERTAN IZENA EMATEA** (irailak 20): **OTAMOTZENA PARKEAN (PAGASARRI KALEA)** ezarriko den izen emate gunean, fitxa betez eta **30€ ordainduz. Aukera hau plaza libreak egonez gero, soilik izango da posible.**
- Ibilbidearen erdian eta helmugan hornidura-gune bat egongo da.
- Antolakuntzak ezarritako denboran 25. Kilometrora iritsi ez diren txirrindulari guztiak helmugara zuzenduko dira.
- **Kaskoaren erabilera derrigorrezkoa da.**
- Ibilbidea aldatzeari esker, proba eremu natural babestuetatik igarotzea saihestu egiten da, eta, ondorioz, aurten bizikleta elektrikoarekin parte hartzea baimenduta egongo da.
- Txirrindulariek frogak dirauen bitartean istripu-asegurua eta mediku-asistentzia eukiko dute.
- Txirrindulariek ingurumena errespetatu behar dute eta bizikletarekin markatutako ibilbidetik soilik igaro ahal izango dira. Ondakinak dagokien edukiontzietara bota beharko dituzte.
- Ibilbidea trafikora irekita egongo da, hortaz, txirrindulariek ibilbide guztian zehar zirkulazio-kodea errespetatzera behartuta daude. Bereziki segurtasun indarrek eta martxaren antolakuntzak ematen dituen araubideei kasu eginez.
- Txirrindulariek aipatutako arauak ez beteatzegatik eragindako kalteen konponketa ez da antolakuntzaren erantzukizuna izango. Halaber, antolakuntzak ez du erantzunik izango datozen kasuetan: aurretiazko miñengatik, txirrindulariak zuhurtziagabekeriak jokatuz gero, arabei muzin eginez jardunez gero etab.
- Txirrindulariek ibilbidea egiteko behar izan duten denbora ez da zenbatuko. Martxa bitartean parte-hartzaile guztien artean zozketa bat burutuko da. Opariak txirrindularitzarekin zerikusia duten gauzak izango dira. Oparidun dortsalen zenbakiak meta gunean argitaratuko dira.

- Norberaren irudirako eskubidea: Erreglamendu hau onartzean txirindulariak martxaren antolakuntzari martxa egiten ari den bitartean argazkiak eta bideoak ateratzera baimentzen dio. Honez gain, bere irudia martxaren promoziorako eta medioetan (TB, egunkarietan, interneten...) inholako konpentsazio ekonomikorik jaso gabe, zabaltzeko baimena emango du behin araudi hau onartuta.
- Antolakuntzak ordutegiak, distantziak eta ibilbideak aldatzeko eskubidea izango du.
- Ibilbide guztia norabide-seinalez markatuta egongo da. Antolakuntzak txirindulariak laguntzeko txirindulariak eta ibilgailuak prest eukiko ditu.
- Dutzak eta bizikletak garbitzeko mahukak egongo dira.
- Txirindulari orok antolakuntzak ezartzen dituen arauak bete beharko ditu.
- Antolakuntzak erreglamendu honetan jasotzen ez diran gorabeherak, ebatziko ditu.
- **DURANGOKO XII SAPUBIKE MTB MARTXAan partehartzeak, aipatutako arau guztiak berariaz onartzea ekarriko du.** Arau hauek ez ezagutzeak ez du partehartzailea bere betetzeko beharraz salbuesten. Arau guzti hauek betetzen ez dituen partehartzailea martxatik kaleratuko da.